


EIDABE EKIMEN KULTURALAK  
aurkezten du

# TXORIMALO: NORMALAREN UXATZAILE

DRAG KULTURA ETA ARTEA

YOGURINHA BOROVA  
IBAI FRESNEDO



**eidabe**

ekimen kulturalak

IRUDIA: KIKO ALCAZAR

## ZER DA?

"*Txorimalo: normalaren uxatzaile - Drag kultura eta artea*" hezkuntza formalean sexu-aniztasuna lantzeko proposamen artistiko eta hezigarria da. *Yogurinha Borova*-k eta Ibai Fresnedok, **ikus-entzunezkoen bidezko hizketaldi pedagogikoak** oinarri hartuta, emanaldi multidiziplinarra eskaintzen dute, **abestiak, performance-ak eta eztabaidarako gunea** proposatuz.

Emanaldiak **ordubeteko iraupena** du eta, metodologia parte-hartzaileen bidez, Drag kulturaren oinarriak, honen potentzialitate artistikoa eta honek izandako ibilbide historikoa zein etorkizunerako erronkak plazaratzen ditu. Hau gutxi balitz, zeharka, LGTBfobiari buruzko oinarrizko kontzeptuak ere lantzen ditu, sexu-aniztasuna, pertsonen askatasuna zein tratu onen oinarriak balioan jarriz.

## NORI ZUZENDUA

**Batxilergoko 1. edota 2. mailako ikasleei zuzendua.**





## HELBURU PEDAGOGIKOAK:

- Sexu-aniztasuna balioan jartzea.
- Sexu-identitatearen oinarrizko kontzeptuak lantzea.
- LGBT+ komunitateari buruzko genealogia ezagutaraztea.
- Matxismoa, sexismoa, arrazismoa eta klasismoa bezalako diskriminazioak lantzea.
- Ikasleen pentsamendu kritikoa garatzea.
- Drag kulturaren baitan dauden eredu aniztasuna bistaratzea.
- Drag kulturak arte garaikidean izandako eragina erakustea.
- Drag kulturak hezkuntzarako duen potentzialitatea erakustea.

## EMANALDIAREN ARDATZ KONTZEPTUALAK

Gure gizartean presente ditugun hainbat kontzeptu eta elementuekin sinbolikoki lotuz, ondorengo ardatzak izango ditugu hizpide:

### **TXORIMALOA (LGTB+ KOMUNITATEKO KIDEAK, DRAG PERTSONAK BARNE)**

*Txorimaloa, gizaki edota identitate arraroa, desberdina, ez ohikoa edo arautik at dagoena sinbolizatzen duena da. Alegia, normalaren uxatzailea. Txorimaloa gainera, komunitatearen baratzean askatasunarekin eta eskubideekin loturiko fruituak, askotan gailentzen diren arau eta praktika sozial hertsatzaileetatik (matxismoa, sexismoa, arrazismoa, klasismoa edota gainontzeko diskriminazioetatik) babesten eta zaintzen ditu. Txorimaloa, beraz, landatutako aniztasuna defendatzen dabilena da. Hau da, kultura eta bizitza bizigarri eta anitza landatu nahi duten guztiak ordezkatzeko.*

## **TXORIAK (GIZARTEKO PERTSONA EDOTA KIDE GUZTIAK)**

*Gure inguruan aniztasun asko dago txorien artean. Ekosistema desberdinetan bizi diren kolore, forma, tamaina eta jatorri askotarikoak. Gizarte guztietan aniztasun handia baitago txorien artean. Baina, batzuei, libreki hegan egiten uzten zaie, eta beste batzuei, ordea, ez beti. Horietako askori, gainera, hegoak ere ebakiz.*

*Aniztasun horren baitan dauden txori gehienak txori normaltzat hartzen dira, eta txori horiek, kontzienteki edo inkontzienteki, homogeneousak dira, moralistak, arau soziala bera betetzen edota betearazten dute, eta, gainera, askok jokabide bortitzak dituzte.*

## **LASTOA (GENEROA EDO BESTELAKO KATEGORIA SOZIALAK)**

*“Lasto” hitza garrantzi gutxi duenari, funtsik gabekoari, azalekoari edota haziaren bilgarriari erreferentzia egiteko erabili ohi dugu. Baina, berez, funtzio anitzak ditu. Eta hain zuzen, lastoa txorimaloa gorpuzteko erabiltzen den bezala, guk lastoari genero rolen sekulako antza hartzen diogu. Lastoa balitz bezala, pertsonok ere azalekoak diren rola eta estereotipoak gorpuzten ditugulako.*



## **HAZIAK (LANDATU NAHI DITUGUN BALIOAK EDOTA ERREFERENTE POSITIBOAK)**

*Haziak, gure komunitatearen lurzoruan haztea nahi dugun hori guztia sinbolizatzen du. Mota eta kolore guztietako haziak edo aleak, txikiak baina bizitzaz beteak. Hau da, gure balioen jarraikortasuna bermatzeko beharrezkoak ditugun haziak...gure eredu propioen ernamuinak.*

## **LURRA (DRAG KULTURAREN ERRONKAK ETA ETORKIZUNA)**

*Lurrak, gizartea bezala, landatzen dugunera egokitzeko gaitasuna dauka. Guztion artean landu eta mugitzen dugun lurra. Guztion artean landu eta mugitzen dugun kultura. Horregatik, Drag Kulturaren lurrak bere fruituak ekar ditzan, honi buruz pentsatzen jartzen gaitu.*

## NORTZUK?

**Yogurinha Borova** (*Eduardo Gaviña*). Bera sortzaile multidisziplinarra da; aktorea, abeslaria, kabaretaria, transformista eta argazkilaria.

**Ibai Fresnedo**. Bera LGBT+ aktibista, hezkidetzan edo pedagogia feministetan aditua, genero parekidetasunerako teknikaria eta sexu hezitzailea da.



#TXORIMALO